

# Nazioarteko ikasle txartela (ISIC) promoziora atxikitzekeo buletina.

- Promozioan parte hartzeko eskakizunak.** Sustapena BBVAren bezero ez diren eta 2021eko ekainaren 13tik 2021eko abenduaren 19ra arte BBVAren webgunearen edo app-aren bidez BBVAko Online kontu bat kontratatzen duten 18 eta 29 urte bitartekoei zuzenduta dago.
- Promoziozko eskaintza.** VIAJOVEN NEWCO S.L. (aurrerantzean VIAJOVEN) Espainian ISIC lizentzia garatzeko eta banatzeko eta Nazioarteko Ikasle Txartela (ISIC) (aurrerantzean, Txartela) emateko eskusibotasun baimena duen sozietate bat da. Promozioaren baldintzak betetzen dituzten eta hari atxikitzen zaizkion bezeroentzat, doan eskaintzen zaie Txartela lehenengo urtean. Txartelaren onuradun izateko, titularrak, aurreko baldintzak betetzeaz gain, Txartelaren onuradun izateko baldintzak bete behar dituzte. Kontsultatu baldintzak [www.isic.es](http://www.isic.es) webgunean
- Entrega.** Txartela jasotzeko, bankuak VIAJOVENi lagako dizkio titularraren behar diren datuak, VIAJOVEN posta elektronikoz titularrarekin harremanetan jarri ahal izateko eta txartela jasotako jarraibideen arabera deskargatu ahal izan dezan.  
  
Txartela jasotzeko baldintza gisa, beharrezkoa da bezeroak BBVAren sistemetan helbide elektronikoa balidatuta edukitzea.
- Fiskalitatea.** Txartela kapital higigarriaren gauzako etekina da, eta PFEZaren konturako diru sarrerei lotuta dago. Bankuak bere gain hartuko du dagokion kontuaren gordailua eta Altxorrean sartzeko kontuaren titularraren (Titularra) izenean, errenta aitorpenerako dagokion zerga-informazioa haren eskura jarritz. Bai errendimendua bai konturako sarrera titular horri egozten zaizkio, helbideratzen den kontuko gainerako titularrak alde batera utzita. Hori guztiori, sustapen honen balio aldian gerta daitezkeen aldaketa fiskalei kalterik egin gabe.
- Datu pertsonalen tratamendua.** Dokumentu honen hirugarren atalean adierazitakoaren arabera, BBVAk Titularri jakinarazten dio, Promozioari atxikitzekeo haren eskaera izapidetu eta Txartela eskuratu ahal izateko, BBVAk datu hauek eman beharko dizkio VIAJOVENi: izena, abizenak, jaiotze data eta helbide elektronikoa. Titularri jakinaraziko zaio, Promozioari atxikitzekeo eta txartela eskuratzekeo, haren datu pertsonalak VIAJOVEN NEWCO S.L.k tratatuko dituela (egoitza: Calle Orense, 25 - Piso 7, Puerta C - CP 28020 MADRID, ESPAÑA - 91 000 50 50, [oficina@isic.es](mailto:oficina@isic.es)), tratamenduaren arduradun gisa, txartelaren titulartasuna kudeatzeko eta harekin erlazioatutako zerbitzuak emateko. VIAJOVENi titularraren datuak tratatzea ahalbidetzen dion legitimazio oinarria Txartela eskatzea da. VIAJOVENek haren datu pertsonalak gordeko ditu kontratu harremanak dirauen bitartean (oro har 12 hilabetez, kontratua berritu ezean). Epe hori amaitutakoan, haren datu pertsonalak blokeatu egingo dira, 19 hilabetez. Aipatutako epea igaro ondoren, haren datu pertsonalak ezabatu egingo dira. VIAJOVENek ez dizkie emango hirugarrenei haren datu pertsonalak, salbu eta

aurretik titularrak berariazko baimena ematen ez badu. Titularrak datuak kontsultatzeko, zuzentzeko, ezabatzeko eta aurkaratzeko eskubideak, hai tratatzearen aurka egitekoak eta haiek eramatekoak erabili ahal izango ditu VIAJOVENen aurrean (helbidea: Calle Orense, 25 - Piso 7, Puerta C - CP 28020 MADRID, ESPAÑA)

BBVAk titularrari gogoraraziko dio BBVAko Online kontua kontratatzean BBVAk "Jarduera ekonomikoaren adierazpena eta datu pertsonalak babesteko politika" dokumentuan ezarritakoari jarraikiz tratatuko dituela titularraren datu pertsonalak.

- 6. Indarraldia.** Sustapena 2021eko ekainaren 13tik 2021eko abenduaren 19ra arte edo izakinak agortu arte egongo da indarrean (sustapenaren hasieran egongo den izakin kopurua: 20.000); hortaz, sustapenean parte hartu ahal izateko, titularra atxikitze bulletina sinatuta atxiki behar zaio Sustapenari, beranduen jota data horretan.

Sustapen honen bidez ISIC txartelak ematen dituen onurek 12 hilabeteko indarraldia dute, txartela jaulkitzen denetik hasita. Epe hori igarotakoan, titularrak Txartelaren abantailez gozatzeko jarraitu nahi badu, ISICekin harremanetan jarri beharko du, eta Txartela berritu.

- 7.** Bankuak beretzat gordeko du Promozioaren baldintzak aldatzeko eskubidea, baldintza berriak indarrean jarriko diren data baino hilabete lehenago aldaketaren berri eman ondoren.
- 8. Atxikitzea:** Titularrak baldintza horiek onartuko ditu, eta sinadura elektronikoaren bidez atxikiko da, bankuak telefono mugikorrera bidaliko dion erabilera bakarreko gakoa idatzita.